Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
02. Ingurune Naturala eta Nekazaritza **02.** ***Medio Natural y Agricultura***	**06.** Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza **06.** *Planificación forestal, Caza y Pesca*	**412.101** Baso kudeaketa eta plangintza **412.101** *Gestion y planificación forestal*

Baso Kudeaketa eta Plangintza programaren xede nagusia Bizkaiko Lurralde Historikoko basoen eta mendien iraunkortasuna bermatzea da, basoen antolamendu, artapen eta kudeaketa iraunkortasunaren bidez. Hartara, mendi eta baso horiek ingurumenaren, ekonomiaren eta enpleguaren aldetik dituzten onurak emango zaizkio gizarteari, baita aisialdi eta bizi-kalitatearen aldetik dakartzatenak ere.

El Programa de Gestión y Planificación Forestal tiene como objetivo principal el garantizar la sostenibilidad de los bosques y montes del TH de Bizkaia por medio de la ordenación, conservación y gestión forestal sostenible, proporcionando a la sociedad los beneficios que estos montes y bosques generan en el ámbito medioambiental, económico y de empleo así como de uso recreativo, ocio y calidad de vida.

Bi atalen bidez garatzen da programa. Baso Kudeaketa (04) eta Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza (06). Memoria hau lehenengoari buruzkoa da.

Este Programa se desarrolla a través de dos Secciones: Gestión Forestal (04) y Planificación Forestal, Caza y Pesca (06). La presente memoria se refiere a la primera de ellas.

Berebiziko garrantzia du basoek (gure lurraldearen azalera osoaren % 60 inguru) ingurumenaren aldetik klima-aldaketaren kontra betetzen duten eginkizunak, karbono-hustubide gisa, basoko florari eta faunari aterpea eta habitata eskainiz. Gainera, enplegu eta jarduera ekonomiko iraunkorrak dakartza landa eremuan.

Es importantísimo el papel que la cubierta forestal (entorno al 60% de superficie total en nuestro territorio) desempeña en términos medioambientales en la lucha contra el cambio climático, como sumidero de carbono, regulando el régimen hídrico y evitando la erosión, dando cobijo y hábitat a la flora y fauna silvestre, y además proporcionando de una manera sostenible, empleo y actividad económica en el ámbito rural.

Basoko eremu horri eutsi ahal izateko, basoon biziraupena eta iraunkortasuna bermatu beharra dago ezinbestean, horiek mantentzean eragina izan ditzaketen arriskuetatik babestuz.

Para poder seguir contando con esta cubierta forestal es preciso garantizar la pervivencia y sostenibilidad de estas masas forestales, protegiéndolas frente a las amenazas y riesgos que pueden incidir en su mantenimiento.

Basoko suteak dira gizarteari horrenbeste etekin dakarzkioten baso-masa horien biziraupenerako arrisku handienetako bat. Azken urteetan ikusi izan denez, ingurumeneko eta basoko kudeaketa iraunkorrerako politikak egitean kontuan hartu behar da basoko suteek dakartzaten ondorio suntsigarriak eta hondamendiak, Basoko Sute Handiak direla eta.

Uno de los mayores riesgos para la pervivencia de estas masas forestales que tantos beneficios reportan a la sociedad es la amenaza de los Incendios Forestales. Como se ha podido constatar en los últimos años, el efecto devastador y catastrófico que suponen los incendios forestales, con el fenómeno de los GIF (Grandes Incendios Forestales), debe ser tenido en cuenta a la hora de diseñar las políticas de sostenibilidad y gestión forestal sostenible.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
02. Ingurune Naturala eta Nekazaritza **02.** ***Medio Natural y Agricultura***	**06.** Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza **06.** *Planificación forestal, Caza y Pesca*	**412.101** Baso kudeaketa eta plangintza **412.101** *Gestion y planificación forestal*

Egitarau honetan bildutako jarduketa multzoaren xedea da, besteak beste, gure basoek eta mendiek hobeto jasatea basoko suteek beraiekin dakarten arriskua.

Beharrezkoak dira aurrezaintzako neurri multzo hori eta suteak larrialdia hastean bizkor itzaltzeko baliabide egokiak, ahal den neurrian, basoko suteek gure lurraldean eragin dezaketen hondamendia saihesteko, baso eremu handikoa baita gure lurraldea.

Halaber, Bizkaiko basoen babesaren alde horretatik basoetako suteen mehatxuarekiko egokiagoak eta indartsuagoak diren basoak eta arbola-multzoak lortzeko neurri prebentiboen ezarpenarekin jarraitzen dugu eta itzaltzearen arloko jarduketen ezarpena eta eragingarritasunaren garapena 2023an onetsi den INFOBI, Bizkaiko LHko Basoetako Suteen Prebentzio eta Itzaltze Plana oinarritzat hartuta egiten da.

Basoak babesteari dagokionez, baso-osasunak garrantzi handia hartu du, onddo kriptogamikoek Bizkaiko intsinis pinuaren mendigunearen azalera garrantzitsu bati eragin baitiote. Kontuan hartu behar da espezie hau nagusia eta ohikoena dela Bizkaian eta, ingurumenari dagokionez duen eragina ez ezik, aldi berean eragin ekonomiko itzela duela eta Euskadiko zurgintzaren industria transformatzailearen lehengai garrantzitsuena dela. Izan ere aparteko gertaera da, Bizkaian 100 urtetan garatu den basogintzan egunera arte ezagutu ez dena, eta gaitz honi ekiteko kontrol eta borroka neurriak ezarri dira eta baita gaitzak basoen jabeen artean eragin dituen ondorioak eta galerak arintzeko neurriak ere. Hala ere, gaixotasunaren bilakaera zaintzen eta jarraitzen segitu behar da eta gaixotasuna hedatzea ekiditeko prebentzio tratamenduak ezarri behar dira.

El conjunto de actuaciones que se recogen en este programa tiene entre otros, como objetivo el que nuestros bosques y montes cuenten con una mayor resistencia frente a la amenaza que suponen los incendios forestales.

Este conjunto de medidas preventivas junto con un adecuado dispositivo de intervención para la extinción rápida de los conatos es necesario para evitar en la medida de lo posible la catástrofe devastadora que los incendios forestales puedan causar en un territorio eminentemente forestal como es el nuestro.

Asimismo, en la línea de la protección de los bosques de Bizkaia se continua con la implementación de medidas preventivas para obtener unos montes y macizos forestales más resistentes ante la amenaza de los Incendios Forestales y se implanta y desarrolla la efectividad de las actuaciones en la extinción en base al INFOBI, Plan de Prevención y Extinción de Incendios Forestales del TH de Bizkaia aprobado el año 2023.

En el ámbito de la protección de los bosques, la sanidad forestal ha cobrado gran importancia debido a la afección de hongos criptogámicos que ha ido expandiéndose con una gran virulencia, a una importante superficie del macizo de Pino radiata de Bizkaia. Hay que tener en cuenta que esta especie es la principal y más abundante de Bizkaia y que además de su importancia medioambiental tiene una importantísima repercusión económica proporcionando la materia prima de la que depende la Industria transformadora de la madera del País Vasco. Ante este evento extraordinario sin referencias en los 100 años de la selvicultura en Bizkaia se han acometido medidas dirigidas al control y lucha contra la enfermedad, así como medidas para paliar los efectos generados por la misma en la propiedad forestal. No obstante, se debe seguir manteniendo la vigilancia y seguimiento de la evolución de la enfermedad, así como de los tratamientos preventivos necesarios para evitar su expansión.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
02. Ingurune Naturala eta Nekazaritza **02.** ***Medio Natural y Agricultura***	**06.** Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza **06.** *Planificación forestal, Caza y Pesca*	**412.101** Baso kudeaketa eta plangintza **412.101** *Gestion y planificación forestal*

Ekintza horiek guztiak ezinbestekoak dira deforestazioa gutxitzeko eta baso mota guztien antolamendu iraunkorrean aurrera egiteko.

Todas estas acciones son vitales para promover la reducción de la desforestación y para avanzar en la ordenación forestal sostenible de todo tipo de bosques.

Proposaturiko helburu orokor horiek lortzeko ahaleginetan, zenbait jarduketa-ildo ezarri dira, eta horien baitan gauzatuko dira lanerako proposamen zehatzak. Funtsean, Basoak, Ehiza eta Arrantza Planifikatzeko Zerbitzuarekin koordinatuta, hauexetara bideratuko dira jarduketak:

La consecución de estos objetivos globales planteados se procura a través de unas líneas de actuación dentro de las cuales se llevan a cabo las propuestas concretas de trabajos. Las actuaciones de manera coordinada con el Servicio de Planificación Forestal, Cinegética y Piscícola, se dirigirán fundamentalmente a:

1) Onura publikoko mendien, jabari publikoko mendien eta partzuergo-mendien baso-kudeaketa eta zaintza. Basoen kudeaketak barnean hartuko ditu baso-aprobetxamenduekin, basoberritzeekin, okupazioekin eta emakidekin lotutako ahalmenak eta eskuduntzak, zaintza eta kontrola (basozainen bitartez), larreen aprobetxamendua, erabilera-aldaketak, zehapen-araubidea eta baso-azpiegiturak.

1) La gestión forestal y custodia de los montes de utilidad pública, demaniales y consorciados. La gestión forestal incluirá las facultades y atribuciones relacionadas con aprovechamientos forestales, repoblaciones, ocupaciones y concesiones, vigilancia y control, a través de la guardería, aprovechamientos de pastos, cambios de uso, régimen sancionador e infraestructuras forestales.

2) Titulartasun pribatuko mendietan zuhaitzak mozteko eta birpopulatzeko baimenak kudeatzea. Titulartasun pribatuko mendietan zuhaitzak mozteko eta birpopulatzeko baimenak kudeatzea.

2) Gestionar las autorizaciones de corta y de repoblación en los montes de titularidad privada.

3) Legeria espezifikoak arauturiko fauna eta floraren habitatak hobetzea.

3) Mejorar los hábitats de la fauna y flora regulados por legislación específica.

4) Mendiaren gizarte eta aisialdi erabilera hobetzea eta araupetzea, aisialdirako gunea eta gizartea mendiaren baliabide naturaletara hurbiltzeko gunea den aldetik.

4) Mejorar y regular el uso social y recreativo del monte como espacio de ocio y acercamiento de la sociedad a los valores naturales del monte.

5) Basoko ustitategi pribatuen hobekuntza estrukturala eta teknifikazioa sustengatzea.

5) Ayudar a la mejora estructural y tecnificación de las explotaciones forestales privadas.

6) Mendiak babestea eta hondamendi naturaletatik kontserbatzea: mendebalak, ekaitzak, uholdeak, basoko suteen kontrako borroka eta basoak izurriteetatik eta gaixotasunetatik babesteko jarduketa egitarauak.

6) Protección de los montes y conservación frente a los desastres naturales: vendavales, tormentas, inundaciones, así como lucha contra los incendios forestales y programas de actuacion de sanidad forestal frente a plagas y enfermedades.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
02. Ingurune Naturala eta Nekazaritza **02.** ***Medio Natural y Agricultura***	**06.** Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza **06.** *Planificación forestal, Caza y Pesca*	**412.101** Baso kudeaketa eta plangintza **412.101** *Gestion y planificación forestal*

7) Baso Batzordearen bultzada eta koordinazio teknikoa eta Hobekuntza Funtsaren kudeaketa.

8) Basoak onura publikoko deklaratzeko, katalogatzeko, haien antolamendurako, mugaketak egiteko, mugarriztatzeko eta okupatzeko espedienteak sustatu eta izapidetzea.

Bi eremutan laburbiltzen da Mendien Zerbitzuaren jarduketa: eremu publikoan mendi publikoak, herri erabilerako mendiak eta BFAko ondareko mendiak kudeatuz; eta eremu pribatuan, berriz, basogintza sustatuz titulartasun pribatuko mendietan.

Eremu publikoa. Titulartasun publikoko mendiak.

Arlo honetan, eta basogintzari buruzko araudia oinarri hartuta, zuzenean kudeatzen dira herri erabilerako mendiak eta ondareko mendiak, Bizkaiko Lurralde Historikoko 45.000 ha inguru hartzen dituztenak hain zuzen. Mendi horietan, antolamendu planetan oinarrituta eta basoen kudeaketa iraunkorreko irizpideei jarraituta, basoak mantentzeko eta garatzeko beharrezko jarduketak egiten dira: birpopulatzeak, mozketak, inausketak, bitarteko mozketak eta azken mozketak, bide-azpiegiturak konpontzea eta mantentzea, mugaketak, mugarriak jartzea eta abar.

Halaber, mendi publikoetan nahiz pribatuetan, izurriteak eta eritasunak kontrolatzeko egitaraua gauzatzen da. Atal honetan, baso-masak kaltetu ditzaketen era guztietako eritasunen eta izurriteen jarraipena eta kontrola egiten da, eta bereziki EBk berrogeialdian adierazitako eritasunak.

7) El impulso y coordinación técnica de la Comisión de Montes y la gestión del Fondo de Mejoras.

8) Impulsar y tramitar expedientes de declaración de utilidad pública, catalogación, ordenación, deslindes, amojonamientos, y ocupación de montes.

La actuación del Servicio de Montes se resume en dos ámbitos: el ámbito público, con la gestión de los Montes Públicos, Montes de Utilidad Pública y Montes Patrimoniales de la DFB, y el ámbito privado, con el fomento de la actividad forestal en los montes de titularidad privada.

Ámbito Público. Montes de titularidad pública.

En este ámbito y en base a la normativa forestal desde el Servicio de Montes se gestiona de una forma directa los denominados Montes de Utilidad Pública y los Montes Patrimoniales que ocupan una superficie de unas 45.000 has en el TH de Bizkaia. En ellos, en base a los planes de ordenación y siguiendo los criterios de gestión forestal sostenible, se llevan a cabo las actuaciones necesarias para el mantenimiento y desarrollo de la cubierta forestal en estos montes: repoblaciones, desbroces, podas, cortas intermedias y cortas finales, arreglo y mantenimiento de la infraestructura viaria, deslindes y amojonamientos, etc.

Asimismo, tanto en estos montes públicos como privados se lleva a cabo el programa de control de plagas y enfermedades, En este apartado se realiza el seguimiento y control de todo tipo de enfermedades y plagas que puedan afectar a las masas forestales y en especial aquellas enfermedades declaradas de cuarentena por la UE.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
02. Ingurune Naturala eta Nekazaritza **02.** ***Medio Natural y Agricultura***	**06.** Baso, Ehiza eta Arrantza Plangintza **06.** *Planificación forestal, Caza y Pesca*	**412.101** Baso kudeaketa eta plangintza **412.101** *Gestion y planificación forestal*

Bestalde, eta arlo publikoan eta pribatuan, etengabeko kezka da beharrezko bide-azpiegiturak hobetzea horrelakorik ez duten baso-masetan, baita egungoa mantentzea ere. Horrek nabarmen eragiten dio zuzenean mozketen ingurumen- eraginen eta basoko produktuak erauzteko kostuen murriztapenari, baita sua itzaltzeko baliabideen irisgarritasunaren hobekuntzari ere eta abar.

Por otra parte, y tanto en el ámbito público como privado es una preocupación constante la mejora de la infraestructura vial necesaria en las masas forestales carentes de ella, así como la conservación de la ya existente. Este aspecto incide de manera importante en la disminución de los impactos ambientales de las cortas y de los costos de extracción de los productos forestales, así como en la mejora de la accesibilidad de los medios de extinción, etc.

Basoko bide-sare egokia izateak, basoko kudeaketako lanak erraztu ez ezik (birpopulatzeak, tratamenduak, produktuen erauzketa eta abar), funtsezko eginkizuna ere betetzen du basoen zatiketan; izan ere, lagungarria da basoko suteen kontrolerako, sua zabaltzea zailtzen baitu eta, aldi berean, itzaltze-lanetako langileek eta suhiltzaileen ibilgailuek errazago baitute suteetara iristea.

La existencia de una red viaria forestal adecuada no solamente facilita la realización de los trabajos de gestión forestal (repoblaciones, tratamientos, extracción de productos, etc.), sino que cumple un papel fundamental en la fragmentación de la masa, que en el control de los incendios forestales constituye una ayuda al dificultar la propagación de éstos, y permitir al mismo tiempo el acercamiento del personal de extinción y los vehículos de bomberos.

Azpiegitura hobetzeko ildo beretik, zur parkeen zuzkidura handitu nahi da gure mendietan, erauzketak errazteko eta hobetzeko.

En la misma línea de mejora de la infraestructura se pretende incrementar la dotación de parques de madera en nuestros montes para facilitar y mejorar las actividades extractivas.

Eremu pribatua. Basoen titulartasun partikularra.

Basoen eremu pribatuak garrantzi handia du Bizkaiko Lurralde Historikoan, zeren eta basoen azalera guztiaren %80 titulartasun pribatukoa baita. Beharrezkoa da eremu horretan basoen kudeaketa iraunkorra sustatzen eta ezartzen jarraitzea, basogintzako jarduera bultzatuz eta ezagutaraziz eta basoko jardun onen kodeak sartuz. Jardun horiek berekin ekarriko dituzte, gainera, ingurumeneko balioak artatzea eta basoko landaketen beharrezko errentagarritasuna.

Ámbito privado. Titularidad forestal particular.

El ámbito privado forestal en el TH de Bizkaia tiene una gran importancia dado que el 80 % de la superficie forestal es de titularidad privada. Es necesario pues continuar con el fomento y la implantación de la gestión forestal sostenible en dicho ámbito regulando fomentando y divulgando la actividad forestal, e incorporando la adopción de los códigos de buenas prácticas forestales que conlleven además de la conservación de los valores medioambientales, la necesaria rentabilidad de las plantaciones forestales.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Helburu eta Ekintzen Sail eta Egitarauka - GASTUAK
Objetivos y Acciones por Departamento y Programa - GASTOS

Saila , Zentru Kudeat. eta Programa / Departamento, Centro Gestor y Programa

02	**Ingurune Naturala eta Nekazaritza** ***Medio Natural y Agricultura***
0206	**BASO, EHIZA ETA ARRANTZA PLANGINTZA** ***PLANIFICACIÓN FORESTAL, CAZA Y PESCA***
412101	**BASO KUDEAKETA ETA PLANGINTZA** ***GESTIÓN Y PLANIFICACIÓN FORESTAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Acción e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Aurreikusia / *Previsión*
1	**HERRI-JABARIKO BASO-JABETZAREN DEFENTSA ETA KONTSOLIDAZIOA** ***DEFENSA Y CONSOLIDACIÓN DE LA PROPIEDAD FORESTAL DEMANIAL***	
1	HERRI-JABARIKO MENDIEN MUGAK ETA MUGARRIAK KATALOGATZEA *CATALOGACIÓN DESLINDES Y AMOJONAMIENTOS DE MONTES DEMANIALES*	
1	Katalogatutako mendien kopurua *Número de montes catalogados*	3
2	Mugatutako mendi kopurua *Número de montes deslindados*	3
3	Mugarritutako mendien kopurua *Número de montes amojonados*	3
2	OKUPAZIO-, KARGA- ETA ZORTASUN-ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA *TRAMITAR EXPEDIENTES DE OCUPACIÓN, GRAVÁMENES Y SERVIDUMBRES*	
1	Espediente-kopurua *Número de expedientes*	4
2	**MENDIETAKO BASO-BALIABIDEEN ANTOLAMENDUA** ***ORDENACION DE LOS RECURSOS FORESTALES DE LOS MONTES***	
1	MENDIAK ANTOLATZEA *ORDENAR MONTES*	
1	Antolamendu-planen kopurua *Número de planes de ordenación*	2
3	**BASO-KUDEAKETA HOBETZEA MENDI PRIBATUETAN.** ***MEJORA DE LA GESTIÓN FORESTAL EN LOS MONTES PRIVADOS.***	
1	BASO-KUDEAKETARAKO LAGUNTZAK *AYUDAS A LA GESTIÓN FORESTAL*	
1	Diruz lagundutako espedienteen kopurua *Número de expedientes subvencionados*	1.400
2	Onartutako baso-kudeaketako planen kopurua *Número de planes de gestión forestal aprobados*	300
3	Emandako dirulaguntza izendunen kopurua *Número de subvenciones nominativas concedidas*	2